

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Hasierako onespena ematea Kantauriko Urkidetzako adukzioaren, etxeak edateko urez hornitzearen, saneamenduaren eta goi sareko arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari

Kantauriko Urkidetzaren Batzar Orokorrak, 2019ko abenduaren 17ko bilkura berezian, erabaki zuen hasierako onespena ematea Kantauriko Urkidetzako adukzioaren, etxeak edateko urez hornitzearen, saneamenduaren eta goi sareko arazketaren zerbitzuak erabiltzaileei emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari.

Bat etorritz uztailaren 19ko 41/89 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin, argitaratu eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko; erabaki hau behin betiko onetsizat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Izoria, 2019ko abenduaren 18a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES